

[Eusk/Cast] Pisu turistikoen aurkako gida / Guía contra los pisos turísticos

AZET ETXEBIZITZA SINDIKATUA :: 11/12/2023

Llevamos tiempo observando como la turistificación avanza en nuestros barrios. Nuestras calles están llenas de tours, tiendas de souvenirs y parecen un centro comercial a cielo abierto.

[Euskara]

Turistifikazioak gure auzoen geroz eta zati handiagoa nola jaten duen ikusten daramagu denbora.

Gure kaleak tour-ez eta souvenir dendaz beteta daude, eta aire zabaleko merkataritza-gunea dirudite.

Testuinguru horretan, AZET Etxebizitza Sindikatuan betebehar gisa ikusten dugu turistifikazio-prozesu horren ariete nagusietako bati aurre egitea: etxebizitza turistikoak. Izan ere, horien berehalako ondorio batzuk honako hauek dira: alokairuaren precio igoera; turisten bizimodua bultzatzea, langile klaseko auzokideen bizimodua ordez; eta, azken batean, auzokideok bizi garen auzoetatik kanporatzea.

Horregatik guztiagatik, arazo horri ere aurre egiteko eta erantzun kolektibo bat emateko antolatu beharra ikusten dugu. Hala bada, AZET Etxebizitza Sindikatuak autodefentsarako tresna berri bat aurkezten du: Etxebizitza Turistikoen Aurkako Gida. Gida honek material erabilgarria eskaintzen du komunitate batean pisu turistikoak agertzea legez eragozteko edo jada existitzen diren pisu turistikoei tasak igotzeko. Klase elkartasunean eta elkarlaguntzan sinesten dugunez, eta printzipio horietan oinarrituta jarduten dugunez, gidarekin batera sindikatuaren eta bere tresna politikoen babesa ere eskaintzen diogu arazo hori kolektiboki konpondu nahi duen komunitate orori.

Atxikita doakizuen bideoan Etxebizitza Turistikoen Aurkako Gida aurkezten da [target=_blank"><https://twitter.com/AzTaldea/status/1734166561064174079>] eta beheko QR kodearekin gida bera deskarga daiteke. Aste honetatik aurrera, lan egiten dugun auzoetako eraikinetan banatzen hasiko gara, eta datozen asteetan, hainbat jarduera antolatuko ditugu gida aurkeztu eta martxan jartzeko.

Haien jabetzak ala gure bizitak, ez dago erdibiderik!

[Castellano]

Llevamos tiempo observando como la turistificación avanza en nuestros barrios. Nuestras

calles están llenas de tours, tiendas de souvenirs y parecen un centro comercial a cielo abierto. En este contexto, desde AZET Etxebizitza Sindikatua vemos como una necesidad hacer frente a uno de los principales arietes de este proceso de turistificación: las viviendas para uso turístico. Entendemos que algunas de sus consecuencias inmediatas son la subida de los precios de los alquileres, la proliferación de la forma de vida turista frente a la de las vecinas de clase trabajadora, y, en última instancia, expulsarnos de los barrios en los que vivimos.

Por todo ello, vemos la necesidad de organizarnos para hacer frente también a esta problemática y darle una respuesta colectiva. Así, desde AZET Etxebizitza Sindikatua presentamos una nueva herramienta de autodefensa: la Guía Contra los Pisos Turísticos. Esta guía proporciona un material útil para, de forma legal, poder impedir la aparición de pisos turísticos en una comunidad de vecinos o subirles las tasas a los ya existentes. Puesto que nosotras creemos en la solidaridad de clase y el apoyo mutuo, y funcionamos en base a estos principios, junto a la propia guía también ofrecemos el apoyo del sindicato y sus herramientas políticas a toda comunidad que quiera atajar esta problemática de manera colectiva.

En el vídeo adjunto se presenta la Guía Contra los Pisos Turísticos [<https://twitter.com/AzTaldea/status/1734166561064174079>] y con el código QR de abajo se puede descargar la propia guía. Desde esta misma semana se empezará a repartir por los edificios de los distintos barrios donde y, en las próximas semanas, iremos organizando distintas actividades para presentarla y ponerla en funcionamiento.

Haien jabetzak ala gure bizitak, ez dago erdibiderik!

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-pisu-turistikoen-aurkako>